

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 11

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

30 urte

Urtarrilak 25

2008ko URTARRILAREN 24ko MAHAI NEGOZIATZAILEA

Pasa den urtarrilaren 24an izan genuen mahai negoziatzailean **jorratu** **genituen** **gaiak** hauexek izan ziren:

- 1. LPE deialdia.** Atzo sindikatuok eta partzuergoak aldez aurretik bidalitako proposamenak luzatu eta zehaztu genituen. Baina ez genuen zehaztasunen inguruan eztabaidatu ezta adostasunik lortu ere. Partzuergoak ez digu beste egutegirik luzatu.
- 2. Lan Hitzarmena.** Gabonak aurretik egin genuen batzarrean, beste proposamenak bota ziren. Dirudenez, Partzuergok espero zuen, sindikatuok aurreko proposamen horietatik hurbilketa bat luzatzea. Partzuergoaren ustez, pilota sindikatuon teiltuetan dago momentu honetan. Ondorioz, negoziatorako jarrera ona eskatu zigun eta Lan Hitzarmenaren inguruan hurbilketa bat.

Beraz, sindikatu guztiak datorren 30ean elkartuko gara ea denen arteko plataforma bat egiteko gai garen.

31an berriro, Mahai Negoziatzaileko batzarra edukiko dugu, eta bilera, Lan Hitzarmenaren eztabaidarekin hasiko da.